

**GIDA
DIDAKTIKOA**



**Ekonomia
arduratsu,
zuzen eta
solidario
bateranzko
urratsak**

EKONOMIA ETA FEMINISMO ETA LGBTI+ ASKAPENA INTERSEKZIONATZEN

Koordinazioa eta edukiak _ **Euskadiko Mugarik gabeko Ekonomialariak**

Proposamen metodologikoa _ **Hiruki Larroxa**

Itzulpena: **Bakun itzulpen eta argitalpen zerbitzuak, s.l.**

Diseinu eta maketazioa _ **Farapi Koop. Elkartea**

Honakoak egin ditzakezu _

-  **Partekatu** — partekatu, kopiatu eta birbanatu edozein bitarteko edo formatutan
- Moldatu** — nahasi, eraldatu eta horretan oinarrituz sortu

Honako baldintzen arabera _

-  **Aitortu** — Aitortza egokia egin behar duzu, lizentziaren esteka eman behar duzu eta aldaketak egin diren adierazi behar duzu. Zentzuzko edozein modutan egin dezakezu hori, baina ez duzu aditzera eman behar lizentzia-emaileak zu edo zure erabilera onesten duenik.

-  **EzKomertziala** — Materiala ezin duzu erabili merkataritza-xedeetarako

-  **PartekatuBerdin** — Materiala nahasten, eraldatzen eta horretan oinarrituz sortzen baduzu, jatorrizkoaren lizentzia berarekin banatu beharko dituzu zure ekarpenak.

Lizentzia _

Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 3.0 Espainia (CC BY-NC-SA 3.0 ES)

* Material hau 2024ko abenduan idazten bukatu zen

AURKIBIDEA

UNITATE DIDAKTIKOAREN HELBURUAK.....	5
--------------------------------------	---

EDUKI KONTZEPTUALAK	6
---------------------------	---

Intersekzionalitatea	7
Ekonomia feminista.....	14
Aurpegi-garbiketa arrosa edo “pinkwashing”	20

UNITATEAREN GARAPENA.....	26
---------------------------	----

1. saioa	28
2. saioa	34
3. saioa	38
+ saioa	43

ERANSKINAK.....	45
-----------------	----

1. eranskina: Intersekzionalitatea (I)	46
2. eranskina: Intersekzionalitatea (II)	48



UNITATE DIDAKTIKOAREN HELBURUAK

- Jendarteko **zapalkuntza** eta diskriminazio ezberdinen kontzientzia hartzea.
- Zapalkuntza anitzen **intersektzioa** eta hauen batera lantzearen garrantzia ulertzea.
- **Ekonomia feministaren** oinarrizko proposamenak ezagutzea.
- **LGBTI+** mugimenduaren **aldarri** antikapitalistak ezagutzea.
- **Proiektu ekonomiko** bat oinarri eraldatzaile eta feministatan eraikitzeko ezaugarri batzuk ezagutzea.



EDUKI KONTZEPTUALAK

Intersekzionalitatea

■ INTERSEKZIONALITEA:

Intersekzionalitatea ikuspegi teoriko eta metodologiko bat da, pertsonen identitate ugari dituztela eta identitate horiek beren bizi-esperientzietan eragina dutela onartuz. Identitate horiek **generoa, arraza, klase soziala, sexualitatea, adina edota desgaitasuna** barne hartzen dituzte, nahiz eta ez mugatu bakarrik horietara. Identitate horietako bakoitzak pertsona bat hainbat botere- eta zaurgarritasun-posiziotan koka dezake gizarte egituren barruan. Adibidez, langile klaseko emakume beltz batek goi klaseko emakume zuri batek ez bezalako erronkak izan ditzake, arrazakeria, sexismoa eta klasismoa uztartzen dituelako.

Intersekzionalitateak identitate horiek ez dutela modu isolatuan jarduten aztertzen du, baizik eta hazi eta gainjarri edo intersekzionatu egiten direla, zapalkuntza eta pribilegiozko esperientzia bakarrak sortuz. **Pertsona batek hainbat diskriminazio-moduri egin diezaieke aurre aldi berean**, eta horrek zaildu egiten du bere egoera, eta ulermen sakonagoa eta zehatzagoa eskatzen du. Adibidez, pertsona transgenero eta arrazializatu batek diskriminazioari aurre egin diezaioke, bai genero-identitateagatik, bai arrazagatik, eta horrek areagotu egiten du bere zaurgarritasun egoera, zapalkuntza-modu bakar bati aurre egiten diotenekin alderatuta.

Aldi berean, intersekzionalitateak nabarmentzen du, identitate anizkoitzek pribilegiozko esperientziak sor ditzaketela zenbait testuingurutan. Azterketa horri esker, hobeto uler daiteke botere-egiturek nola eragiten duten pertsonen bizitzan eta zapalkuntza-modu desberdinek nola indartu dezaketen elkar.

Azkenik, ikuspegi intersekzionala **funtsezkoa da pertsona guztien premiei benetan helduko dieten politikak eta praktikak garatzeko**, batez ere zapaldutako identitate anitzen intersekzioetan. Giza esperientzien konplexutasuna kontuan hartuta, intersekzionalitateak justizia sozial inklusiboago eta eraginkorrago baterantz garamatza, pertsona guztiak duintasunez eta errespetuz bizi ahal izateko gizarteak sustatuz, haien identitate anitzak alde batera utzita.

■ BOTERE- ETA DESBERDINTASUN-DINAMIKAK:

Botere- eta desberdintasun-dinamikak funtsezkoak dira egitura sozialek eta ekonomikoek pertsona-taldeen arteko desberdintasunak nola iraunarazten dituzten ulertzeko. **Botere-egiturak**, hala nola patriarkatua, arrazakeria eta kapitalismoa, **sakon errotuta daude gure erakundeetan eta gizarte-sistemetan**, eta desberdintasunak mantentzeko eta erreproduzitzeko jarduten dute. Egitura horiek zehazten dute nork duen sarbidea baliabideetara, aukeretara eta pribilegioetara, eta nork ez. Adibidez, lan-politikek klase ertaineko gizon zuriei mesede egin diezaiekete, eta emakumeak, sexu-disidenteak, pertsona arrazializatuak eta langile klaseak aukera berdinetatik kanpo uzten dituzte.

Zapalkuntza modu ezberdinek, arrazismoa, sexismoa eta klasismoa kasu, **ez dute modu isolatuan jarduten**. Aitzitik, elkar lotzen dira eta elkar indartzen dute, menderatze-sistema konplexu bat sortuz. Emakume beltz batek, adibidez, genero- eta arraza-diskriminazioari aurre egin diezaioke aldi berean, eta horrek bere desabantaila larriagotzen du emakume zuri edo gizon beltz batekin alderatuta. Zapalkuntza-modu desberdinen arteko elkarrekintza horri interseksionalitatea esaten zaio, eta funtsezkoa da desberdintasunak nola betikotzen eta anplifikatzen diren ulertzeko.

Botere-dinamika horien azterketak agerian uzten du erakundeen politikek eta praktikek gizarte-hierarkiak islatzen eta indartzen dituztela askotan. Esate baterako, hezkuntza-sistemak klasismoa eta arrazakeria iraunaraz ditzake, diru-sarrera txikiko eta gehienbat arrazializatutako komunitateetan baliabide eta laguntza gutxiago ematen baitie eskolei. Era berean, etxebizitza- eta osasun-politikek talde jakin batzuk sistematikoki diskriminatu ditzakete, eta oinarritzko zerbitzuak eta bizi-aukera duinak izateko aukera mugatu. Praktika horiek dauden desberdintasunei eusteaz gain, denborarekin sakondu ere egiten dituzte.

Botere- eta desberdintasun-dinamikak ulertzea funtsezkoa da justizia sozialeko estrategia eraginkorrek garatzeko. Zapalkuntza-moduek elkarri eragiten diotela eta elkar indartzen dutela onartzean, politika eta praktika inklusiboagoak eta bidezkoagoak diseina ditzakegu. Horrek esan nahi du, desberdintasun nabariei heltzeaz gain, desberdintasun horiek iraunarazten dituzten azpiko botere-egiturak ere desegin behar direla. Orduan bakarrik egin ahal izango dugu aurrera gizarte bidezkoago baterantz, non pertsona guztiek beren potentzial osoa lortzeko aukera izango duten, generoak, arrazak, klaseak edo beste identitate batzuek mugatu gabe.



Botere-egiturak, hala nola patriarkatua, arrazakeria eta kapitalismoa, **sakon errotuta daude gure erakundeetan eta gizarte-sistemetan**, eta desberdintasunak mantentzeko eta erreproduzitzeko jarduten dute.



■ IKUSPEGI KRITIKOA ETA ERALDATZAILEA:

Ikuspegi kritikoa eta eraldatzailea funtsezkoa da identitate anitzen konplexutasuna aintzat hartzen ez duten **teoria eta praktika tradizionalak zalantzan jartzeko** eta horiei aurre egiteko. Teoria ekonomiko, sozial eta politiko nagusi asko ikuspegi homogeneotik garatu dira, eta, askotan, zapalkuntza mota askoren elkargunean dauden pertsonen esperientziak baztertzen dituzte, hala nola generoa, arraza, klase soziala eta sexu-orientazioa. Bazterketa horrek errealitatearen ikuspegi mugatu eta partziala betikotzen du, eta ez ditu kontuan hartzen desberdintasunak adierazteko eta elkar indartzeko dauden moduak.

Teoria eta praktika horiek kritikatzeko, haien mugak onartu behar dira, eta ikuspegi inklusiboagoa eta ulergarriagoa txertatu behar da. Ikuspegi kritiko batek, dauden teorien akatsak adierazteaz gain, teoria horiek sostengatzen dituzten botere-egiturak ere zalantzan jartzen ditu. Horren barruan sartzen da **zapalkuntza eta bidegabekeria betikotzen duten narratiba nagusiei aurre egitea**, eta gizarte-politikak eta -praktikak gidatzen dituzten oinarritzko premisak berriz ebaluatzearen alde egitea. Hori egitean, historikoki baztertuak izan diren ahotsak eta esperientziak kontuan hartzeko tarte zabaltzen da.

Ikuspegi eraldatzailea kritikarik harago doa, eta zapalkuntza mota desberdinak modu integralean landuko dituzten estrategiak eta politikak proposatzen ditu. Horrek esan nahi du identitateen interseksionalitatea aitortzen eta erantzuten duten politikak diseinatu behar direla, eta ziurtatu behar dela konponbideek ez diotela soilik talde bati mesede egiten, beste talde baten kaltetan. Adibidez, klase ertaineko emakume zuriei soilik mesede egiten dieten genero-berdintasuneko politikak ezarri beharrean, funtsezkoa da emakume arrazializatuen, langile-klasekoen eta LGBTI+ pertsonen behar espezifikoak ere helduko dieten politikak garatzea.

Estrategia eta politika horiek inklusiboak eta holistikoak izan behar dute, esperientzien eta beharren aniztasuna kontuan hartuta. Horren barruan honako hauek sar daitezke: ezberdintasun-ardatz ugari kontuan hartzen dituzten ekintza-programak ezartzea, pertsona guztientzako espazio seguruagoak eta irisgarriak sortzea, eta interseksionalitateari eta justizia sozialari buruzko hezkuntza eta sentsibilizazioa sustatzea. Ikuspegi kritikoa eta eraldatzailea hartzean, konponbide eraginkoragoak eta bidezkoagoak gara daitezke, zapalkuntzaren sintomak lantzeaz gain, sakoneko sustraiei ere eraso egingo dietenak, **aldaketa sistemiko eta iraunkorra sustatuz**.



■ TESTUINGURUA ETA BEGIRADA KOKATUA:

Testuingurua kontuan hartzea eta begirada kokatua edukitzea funtsezkoa da ulertzeko testuinguru historikoak, kulturalak, sozialak eta politikoak nola eragiten duen zapalkuntzen elkargunean. **Pertsonak zapalkuntza eta pribilegioa pairatzeko dituzten moduak ez baitira unibertsalak;** aitzitik, bizi diren denbora eta lekuaren zirkunstantzia espezifikoek moldatzen dituzte. Adibidez, arrazakeria eta sexismoa hainbat modutan ager daitezke testuinguru kultural eta historiko desberdinetan. Azterketa interseksionalak kontuan hartu behar ditu aldaketa horiek, boterearen eta desberdintasunaren dinamikak erabat ulertzeko.

Historikoki, **kolonialismoa, patriarkatua eta kapitalismoa bezalako zapalkuntza-egiturek ondare iraunkorrak utzi dituzte**, pertsonen esperientzietan eragina izaten jarraitzen dutenak. Legatu horiek desberdintasunak islatzen dituzten egungo gizarte-politika eta -arauetan agertzen dira. Testuinguru postkolonial batean, adibidez, pertsona arrazializatuak esplotazioaren eta deshumanizazioaren historia kolonialean sakon errotuta dauden diskriminazio-modu espezifikoak aurre egin diezaiekete. Beraz, testuinguru historiko hori ulertzea funtsezkoa da zapalkuntza modu garaikideei heltzeko.

Kultura-testuinguruak ere paper garrantzitsua du zapalkuntzen elkargunean. Kultura-arauek eta -balioek eragina izan dezakete identitateak hautemateko eta tratatzeko moduan. Kultura batzuetan, genero eta orientazio sexual batzuk beste batzuetan baino onartuagoak izan daitezke, eta horrek eragina du pertsonen zapalkuntza eta pribilegioa pairatzeko duten moduan. Gainera, praktika kulturek egungo botere-egiturak indartu edo desafiatu ditzakete, eta funtsezkoa da dinamika horiek ulertzea desberdintasunei eraginkortasunez heltzeko.

Interseksionalitatea ez da estatikoa; denboraren eta lekuaren arabera alda daiteke. Identitateak eta zapalkuntza-esperientziak pertsona baten bizitzan zehar alda daitezke, testuinguru geografiko eta denborazko desberdinetan. Adibidez, emakume etorkin batek hainbat diskriminazio-modu izan ditzake bere jatorrizko herrialdean, emigratu duen herrialdearekin alderatuta. Era berean, gizarte-politikan eta -arauetan denboran zehar gertatzen diren aldaketek zapalkuntzak agertzeko eta interseksionalatzeko moduak alda ditzakete. Aldakortasun hori ezagutzea funtsezkoa da testuinguru desberdinetan pertsonen behar aldakorrei erantzun dieten ikuspegi dinamikoak eta egokitzaileak garatzeko.

■ ERRESISTENTZIA ETA AGENTZIA:

Erresistentzia eta agentzia funtsezkoak dira ulertzeko nola pertsonen eta komunitateen zapalkuntzei aurre egiteko moduak ere aurkitzen dituzten. Erresistentzia-modu horiek aztertzeak aukera ematen baitigu kontrakotasun testuinguruetan dauden pertsonen erresilientzia eta sormena ezagutzeko eta baloratzeko.

Komunitateek erresistentzia-estrategia bakarrak garatzen dituzte, beren identitate anitzak eta testuinguru espezifikoak islatzen dituztenak, eta horrek erakusten du zapalkuntza ez dela inoiz erabatekoa, ezta behin-betikoa ere.

Agentzia, modu autonomoan jarduteko eta erabakiak hartzeko gaitasun gisa ulertuta, **funtsezko osagaia da bidegabekeriaren aurkako erresistentzian.** Pertsonen, baldintza zapaltzaileenetan ere, beren agentzia erabiltzeko eta beren eskubideen eta duintasunaren alde borrokatzeko moduak aurkitzen dituzte. Ekintza-gaitasun horrek, dauden botere-egiturei aurre egiteaz gain, testuinguru horien barruan posible dena ere birdefinitzen du. Adibidez, emakumeek edo LGBTI+ pertsonen gidatutako gizarte-mugimenduek erakusten dute komunitate-antolamenduak eta mobilizazioak baldintza sozial eta politikoak eralda ditzaketela.

Erresistentzia moduak aztertzeak, beraz, **komunitateen zapalkuntzaren aurrean bizirauteko eta aurrera egiteko erabiltzen dituzten taktikak eta estrategiak** ulertzen ere laguntzen digu. Taktika horien artean, elkarri laguntzeko sareak sortzea egon daitezke, baita gune seguruagoak eraikitzea edo protestak eta kanpaina politikoak antolatzea ere. Erresistentzia modu horiek aztertzean, praktika eraginkorrak identifika ditzakegu, hainbat testuingurutan errepikatu edo egokitu daitezkeenak, borrokan ari diren beste komunitate batzuei laguntzeko.

Agentziaren eta erresistentziaren garrantzia, aldaketa soziala inspiratzeko eta justizia soziala sustatzeko duen gaitasunean datza. Zapaldutako pertsonen eta komunitateen agentzia aitortzeak biktima pasibo gisa soilik aurkezten dituzten narratibak desafiatzen baititu, eta ekitatearen aldeko borrokan duten zeregin aktiboa nabarmentzen du. Pertsonak injustizien aurka egin dezaten ahalduz, erresistentzia- eta elkartasun-kultura sustatzen da, botere-egiturak nabarmen alda ditzakeena. Horrela, erresistentzia eta agentzia ez dira soilik zapalkuntzaren erantzunak, baita **aldaketa sozial sakon eta iraunkor baten bultzatzaile diren indarrak** ere.

”

Komunitateek **erresistentzia-estrategia** bakarrak garatzen dituzte, beren **identitate anitzak** eta testuinguru espezifikoak islatzen dituztenak.



■ ELKARTASUNA ETA ALIANTZAK:

Elkartasuna eta aliantzak funtsezkoak dira hainbat gizarte-taldek aurre egin behar dieten zapalkuntza-modu anitzei eraginkortasunez heltzeko. Elkartasunak taldeen arteko elkarrekiko errekonozimendua eta laguntza eskatzen du. Talde horiek, zapalkuntza mota desberdinei aurre egin diezaiaketen arren, justizia- eta ekitate-helburu bera dute. Zapaldutako taldeen arteko elkartasuna sustatzea funtsezkoa baita desberdintasunak betikotzen dituzten **botere-egituren aurkako fronte bateratua sortzeko**. Batasun horrek ahotsak eta ahalegin kolektiboak indartzen ditu, aldaketa esanguratsua lortzeko aukerak areagotuz.

Aliantza sendoak eraikitzeko, zapalkuntza-esperientziak sakon aitortu eta errespetatu behar dira. Koalizio arrakastatsuek hainbat mugimendu eta komunitate taldekatzeaz gain, **talde bakoitzaren berezitasunak eta haien borroken elkarguneak** onartzen dituzte. Adibidez, arrazismoa eta sexismoa lantzen dituen koalizio batek aitortu behar du zapalkuntza horiek modu desberdinean gurutzatzen direla eta eragiten dietela arrazalizatutako emakumeei. Ikuspegi interseksional horrek bermatzen du **koalizioaren estrategiak eta helburuak inklusiboak izatea** eta kide guztien benetako beharrak islatzea.

Aliantzak osatzeak berekin dakar justizia sozialeko mugimenduen barruan tradizionalki **baztertuak izan direnei entzuteko eta ahotsa emateko ahalegin kontziente** egitea. Horrek esan nahi du lidergo-espazioak komunitate baztertueta pertsonen eman behar zaizkiela, eta haien ikuspegiak eta esperientziak erabakiak hartzerakoan kontuan hartzen direla ziurtatu behar dela. Inklusioak eta benetako ordezkariak aliantzak indartzen dituzte, alderdi guztiak baloratuak eta konprometituak sentitzen baitira helburu komunarekin. Gainera, praktika horrek ulermen eta enpatia handiagoa sustatzen du taldeen artean, eta horrek oztopoak hausten eta batasuna sustatzen lagun dezake.

Azkenik, elkartasuna eta aliantzak zapalkuntzari aurre egiteko tresna estrategikoak izateaz gain, **justizia sozialarekiko konpromiso etikoaren adierazpenak** ere badira. Elkarrekin lan egitean, taldeek elkarrengandik ikas dezaketelako, baliabideak partekatu eta taktika eta estrategia berriak garatu. Lankidetzak horrek, erantzun-ekintzen eragina handitzeaz gain, aldaketarako oinarri zabalagoa eta sendoagoa ere eraikitzen du. Azken batean, elkartasunak eta aliantzek mundu bidezkoago bat posible delako uste sendoa islatzen dute; elkar lagunduz eta ekintza kolektiboaren bidez eraginkorrago lor baitaiteke.

”



Zapaldutako taldeen arteko elkartasuna sustatzea funtsezkoa baita desberdintasunak betikotzen dituzten botere-egituren aurkako fronte bateratua sortzeko.

Bibliografia:

- Crenshaw, Kimberlé. (1989). *“Desmarginalizando la intersección de raza y sexo: una crítica feminista negra de la doctrina antidiscriminatoria, la teoría feminista y la política antirracista.”* University of Chicago Legal Forum.
- Collins, Patricia Hill. (2000). *El pensamiento feminista negro: conocimiento, conciencia y política de empoderamiento*. Ediciones Cátedra.
- hooks, bell. (2000). *Teoría feminista: de marginación a centro*. Ediciones Morata
- Davis, Angela Y. (1981). *Mujeres, raza y clase*. Akal.
- Mohanty, Chandra Talpade. (2003). *Feminismo sin fronteras: teoría decolonial, prácticas globales*. Ediciones Cátedra.
- Yuval-Davis, Nira. (2006). *“Interseccionalidad y políticas feministas.”* European Journal of Women’s Studies, 13(3), 193-209.
- Freire, Paulo. (1970). *Pedagogía del oprimido*. Siglo XXI Editores.
- Sandoval, Chela. (2000). *Metodología de la opresión*. Ediciones Bellaterra.
- Nash, Jennifer C. (2008). *“Repensando la interseccionalidad.”* Feminist Review, 89(1), 1-15.

Ekonomia feminista

■ EKONOMIA FEMINISTA:

Ekonomia feminista **ekonomiaren adar kritikoa da**, eta zalantzan jartzen ditu genero-desberdintasunak sarritan alde batera uzten edo minimizatzen dituzten eredu tradizionalak. Ekonomialari feministek argudiatzen dute ekonomia konbentzionalak merkatu formalean eta ordaindutako lanean zentratzeko joera duela, horrela, emakumeek egin ohi duten ordaindu gabeko lana alde batera utziz, hala nola etxeko lana eta pertsonen zaintza. Ikuspegi partzial horrek ikusezin bihurtzen ditu emakumeen ekarpen ekonomiko esanguratsuak, eta funtzionamendu ekonomikoaren ikuspegi osatugabea iraunarazten du.

Ekonomia feministaren kritika nagusietako bat “homo economicus” kontzeptua da, eragile ekonomikoak arrazionalak, berekoiak eta isolatuak direla onartzen baitu. Eredu honek ez du kontuan hartzen erabaki ekonomiko asko harreman sozialen eta botere-harremanen testuinguruetan hartzen direla, non emakumeek askotan autonomia eta baliabide gutxiago dituzten. Gainera, ekonomia feministak azpimarratzen du politika ekonomikoek eta ongizate-sistemek genero-desberdintasunak indartzen dituztela askotan, gizonei neurritz kanpo mesede eginez eta emakumeak bigarren mailako roletan edota mendekotasun-roletan mantenduz.

Hutsune horiei aurre egiteko, ekonomia feministak metodologia eta ikuspegi berriak proposatzen ditu, azterketa ekonomikoan genero-ikuspegia txertatuko dutenak. Horrek esan nahi du **ordaindu gabeko lana eta ekonomiari egiten dion ekarpena balioetsi** behar direla, eta politika ekonomikoek gizonei eta emakumeei modu bereizian nola eragiten dieten aztertu behar dela. Adibidez, BPG nazionalean ordaindu gabeko laneko kontuak sartzeak ekonomiaren irudi osoagoa eman dezake, baita emakumeei hobeto lagunduko dieten politikak formulatzea ahalbidetu ere.

Gainera, ekonomia feministak genero-berdintasuna sustatzen duten politikak ezartzearen alde egiten du, hala nola ordaindutako guraso-lizentzia, haurrak zaintzeko zerbitzuetarako sarbide unibertsala eta soldata-berdintasuna. Halaber, emakumeek erabaki ekonomikoak hartzen parte har dezaten sustatzen du, bai eta genero-aniztasuna aitortzen eta baloratzen duten lan-inguruneak sor daitezen ere. Ikuspegi horiek integratzean, ekonomia feministak, egungo desberdintasunak zuzentzeaz gain, **egitura ekonomiko eta sozialak eraldatu nahi ditu**, benetako genero-justizia lortzeko.

■ ORDAINDU GABEKO LANA ETA ZAINTZAREN EKONOMIA:

Ordaindu gabeko zaintzako lanak, **tradizioz emakumeek egindakoak**, ezagutzeko eta balioesteko beharra funtsezkoa da. Lan mota horren barruan sartzen dira, besteak beste, etxea garbitzea, elikagaiak prestatzea, haurrak, adinekoak eta gaixoak zaintzea. Zeregin horiek funtsezkoak dira gizartearen ongizaterako, baina ez dira ohiko neurketa ekonomikoetan zenbatzen, hala nola Barne Produktu Gordinean (BPG). Lan hori kontu nazionaletan sartzen ez denez, haren garrantzia ikusezin bihurtzen da eta genero-desorekak betikotzen dira.

Ordaindu gabeko **zaintza-lanak ekonomia formalari eusten dio**, etxeko beste kide batzuek ordaindutako lan-merkatuan parte hartzea ahalbidetzen baitu. Lan hori gabe, jarduera ekonomiko asko ez lirateke posible izango. Hala ere, zeregin horiek ez onartzeak eta balioesteak lagundu egiten du lan-merkatuan genero-arrakala mantentzen; izan ere, emakume askok lanaldia murriztu behar izaten dute, edo kalitate eta ordainsari txikiagoko enpleguak onartu behar izaten dituzte zaintza-ardurak bete ahal izateko.

Zaintza-lanak ekonomian duten eragina esanguratsua da. Hainbat ikerketen arabera, lan hori ekonomikoki baloratuko balitz, BPGren proportzio handia izango litzateke. Gainera, **zaintzaren ekonomia estuki lotuta dago pertsonen bizi-kalitatearekin**, gizabanakoen ongizatea eta garapena bermatzen baititu, haurtzarotik zahartzarora arte. Zaintza-sistema egoki batek, zaintza jasotzen dutenei ez ezik, zaintza hori ematen dutenei ere mesede egiten die, estresa murrizten, bai eta ongizate fisikoa eta emozionala hobetzen ere.

Ordaindu gabeko lana eta zaintzaren ekonomia aintzatestek zaintzaileei laguntzeko politika publikoak hartzea dakar. Horren barruan sartzen da zaintza-zerbitzu irisgarriak eta kalitatezkoak ezartzea, gizonen eta emakumeen arteko zaintza-lanetan erantzunkidetasuna sustatzea, eta zeregin horiei balio ekonomikoa eta soziala ematea. Hori egitean, gizarte bidezkoago baterantz egiten da, non kide guztien ongizatea behar bezala balioesten den; **emakumeen gain dagoen karga neurrigabea murriztuz**, eta horrela genero-berdintasuna sustatuz.

”

Ordaindu gabeko **zaintza-lanak** ekonomia formalari eusten dio, etxeko beste kide batzuek ordaindutako **lan-merkatuan parte hartzea** ahalbidetzen baitu.



■ LAN- ETA SOLDATA-DESBERDINTASUNAK:

Gaur egun ere, emakumeek, lan-esparruan, generoaren arabera okupazio-segregazioari eta horren ondorioei aurre egin behar diete, baita soldata-arrakalari eta lan-baldintza eskasei ere.

Generoaren arabera **okupazio-segregazioa** gizonek eta emakumeek enplegu eta sektore desberdinetan lan egiteko duten joerari dagokio. Bereizketa horretan eragin handia dute kultura-arauek eta genero-estereotipoek; izan ere, emakumeak zaintza- eta zerbitzu-rolkin lotzen dituzte, eta gizonak rol teknikoagoekin eta lidergo-rolkin. Horren ondorioz, emakumeak hezkuntza, osasuna eta gizarte-zerbitzuak bezalako sektoreetan kontzentratzen dira, gizonek menderatzen dituzten sektoreekin alderatuta okerrago ordainduak eta gutxiago baloratuak izateko joera baitute.

Generoaren arabera soldata-arrakala laneko desberdintasunen adierazpen argia da. Emakumeek, batez beste, gizonek baino gutxiago irabazten dute balio bereko lanak egiteagatik. Soldata-desberdintasun hori hainbat faktorek eragiten dute, hala nola zuzeneko diskriminazioak, okupazio-segregazioak, zaintza-erantzukizunen ondoriozko lan-karreraren eteteak eta emakumeen lanaren azpi-balorazioak. Emakumeek ere joera txikiagoa dute goi-zuzendaritzako eta lidergoko postuak betetzeko, eta horrek ordainsari eta aurrera egiteko aukera gutxiago ematen ditu, gizonezko lankideekin alderatuta.

Emakumeen lan-baldintzak gizonek baino txarragoak izaten dira. Emakumeek, askotan, prekaritate maila altuagoak izaten dituzte: laneko segurtasunik eza, lanaldi partzialeko enpleguak, eta lan-onurarik ez izatea, hala nola amatasunagatik lizentziaren ondorengo haurrak zaintzeko zerbitzurik eza. Gainera, sexu-jazarpena, diskriminazioa eta lan- eta familia-erantzukizunak orekatzeko laguntzarik eza barne hartzen dituen lan-ingurune etsai bati aurre egin behar izaten diote emakumeek. Baldintza horiek zaildu egiten dute emakumeek ahalik eta ahalmen profesional handiena lortzea, eta lantokian genero-desberdintasunak betikitzen laguntzen dute.

Desberdintasun horiei aurre egiteko, funtsezkoa da **lan-eremuan genero-berdintasuna sustatzen duten politikak ezartzea**. Horren barruan sartzen dira baieztatzeko ekintza-neurriak hartzea, soldata-berdintasunerako politikak, eta zaintza-lanetan erantzunkidetasuna sustatzea. Gainera, funtsezkoa da lan-ingurune inklusiboa eta diskriminaziorik gabekoa sustatzea, non emakumeak profesionalki garatu ahal izango diren oztopo gehigarriei aurre egin gabe. Genero-berdintasunarekiko konpromiso irmo eta iraunkor baten bidez bakarrik gaindi daitezke lan- eta soldata-desberdintasunak, eta, horrela, ingurune bidezkoagoa sortzen da pertsona guztientzat.

■ ABERASTASUNAREN ETA POBREZIAREN BANAKETA:

Aberastasunaren eta pobrezia-aren banaketa nola ematen den ulertzea funtsezkoa da gizonen eta emakumeen arteko desberdintasun ekonomikoak ulertzeko eta aberastasuna eta baliabideetarako sarbidea modu ekitatiboan banatzearen garrantzia ulertzeko.

Aberastasunaren banaketa desorekatuak esan nahi du **baliabide ekonomikoak, aukerak eta boterea gutxi batzuen esku daudela**, eta biztanleriaren zati handi bat, batez ere emakumeak eta kolektibo zaugarriak, onura horietatik kanpo geratzen dela. Desberdintasun horrek pobrezia eta desberdintasuna betikotzeaz gain, gizartearen garapen ekonomiko eta sozialaren potentziala ere mugatzen du.

Pobrezia-aren feminizazioak, emakumeek munduko pertsona pobreen proportzio neurrigabe handia nola ordezkatzeko duten deskribatzen du. Emakumeek baliabide ekonomiko, hezkuntza, arreta mediko eta ondo ordaindutako lan-aukera gutxiago dituzte. Gainera, zaintza-erantzukizun handiagoei eta ordaindu gabeko lanari aurre egin behar diete, eta horrek mugatu egiten du diru-sarrerak sortzeko gaitasuna. Pobrezia-aren feminizazio hori hainbat faktoreen emaitza da, hala nola genero-diskriminazioa, laguntza-politikarik eza eta emakumeak bigarren mailako eta mendeko roletara baztertzen dituzten gizarte-arauek.

Pobrezia-aren feminizazioaren inplikazioak sakonak eta askotarikoak dira. **Pobrezia eragina du emakumeek hezkuntza eta osasuna bezalako oinarritzko zerbitzuak eskuratzeko duten gaitasunean**, eta horrek iraunarazten du pobrezia eta desberdintasuneko belaunaldien arteko zikloa. Pobrezia-egoeran dauden emakumeek ere arrisku handiagoa dute genero-indarkeriaren eta lan- eta sexu-esplotazioaren aurrean. Gainera, baliabide ekonomikorik ez izateak mugatu egiten du emakumeek bizitza politikoan eta sozialean bete-betean parte hartzeko duten gaitasuna, eta murriztu egiten du haien eragina beren bizitza eta komunitateei eragiten dieten erabakiak hartzerakoan.

Aberastasunaren banaketa desberdinari eta pobrezia-aren feminizazioari aurre egiteko, funtsezkoa da genero-berdintasuna eta emakumeen ahaluntze ekonomikoa sustatzen duten politikak eta estrategiak ezartzea. Horren barruan sartzen dira, besteak beste, zerga-politika progresiboaren bidez diru-sarrerak birbanatzea, haurrak zaintzeko zerbitzuak eta guraso-lizentziak eskuratzeko, emakumeentzako hezkuntza eta lanbide-heziketa sustatzea, eta finantza-baliabideak eta lan-aukerak eskuratzeko berdintasuna bermatzea. Pobrezia-aren eta genero-desberdintasunaren egiturazko kausak onartzean eta horiei heltzean, aurrera egin daiteke aberastasuna eta baliabideetarako sarbidea modu bidezkoagoan banatzeko, eta, horrela, gizarte osoaren ongizatea hobetzeko.



■ INDARKERIA EKONOMIKOA:

Indarkeria ekonomikoa abusu modu bat da, emakumeei neurriz kanpo eragiten diona, eta finantza-baliabideak, jabetza eta aukera ekonomikoak eskuratzeko aukerarik eza adierazten du. Indarkeria mota hori ez da fisikoa edo emozionala bezain agerikoa, baina **eragin sakona eta iraunkorra du emakumeek bizitza seguru eta duinak bizitzeko** duten autonomian eta gaitasunean. Indarkeria ekonomikoa identifikatzea eta aztertzea funtsezkoa da genero-desberdintasunak dimentsio guztietan ulertzeko eta horiei heltzeko.

Indarkeria ekonomikoaren barruan sartzen dira dirua eta baliabideak eskuratzeko kontrola, finantza-erabaki garrantzitsuak baztertzeko eta enplegu-edo hezkuntza-aukerak ukatzea. Gizarte askotan, emakumeek aukera gutxiago dituzte banku-kontuetarako, krediturako eta bestelako finantza-zerbitzuetarako sarbidean. Horrek negozio propioak hasteko, hezkuntzan edo etxebizitzan inbertitzeko eta etorkizun ekonomikoa planifikatzeko gaitasuna mugatzen du. Finantza-baliabideak ez eskuratzeko, halaber, abusuzko harremanetan edo ustiapen ekonomikoko egoeretan jarraitzea behartu ditzake emakumeak, **finantza-mendekotasuna** dela eta.

Indarkeria ekonomikoaren beste modu kritiko bat jabetzarako sarbiderik eza da. Kultura eta lege-sistema askotan, emakumeek oztopoak dituzte lurra eta beste ondasun batzuk edukitzeko edota oinordetzan hartzeko. Diskriminazio horrek mugatu egiten du epe luzera **diru-sarrerak eta segurtasun ekonomikoa sortzeko gaitasuna**. Ondasunen jabetza funtsezkoa baita, egonkortasun ekonomikorako ez ezik, kreditua lortzeko eta jarduera ekonomiko zabalagoetan parte hartzeko ere. Jabetzaren jabe izateko eta kontrolatzeko gaitasunik gabe, emakumeak egoera zaurgarrian eta mendeko egoeran daude.

Indarkeria ekonomikoari aurre egiteko, funtsezkoa da **finantza-baliabideak eta jabetza eskuratzeko berdintasuna** bermatuko duten politikak eta praktikak ezartzea. Horren barruan sartzen dira emakumeen jabetza-eskubideak bermatzeko lege-erreformak, finantza-hezkuntzako programak eta banku-eta kreditu-zerbitzuetarako sarbidea. Gainera, garrantzitsua da emakumeen gizarteratze ekonomikoa sustatzea, haien ekintzailatza eta lan-merkatuan parte hartzea babesten duten ekimenen bidez. Indarkeria ekonomikoari heltzean, emakumeak ahaldundu daitezke, non guztiek aukera izango duten aurrera egiteko.

”

Gizarte askotan, emakumeek **aukera gutxiago** dituzte banku-kontuetarako, krediturako eta bestelako finantza-zerbitzuetarako sarbidean.

Bibliografia:

- Benería, Lourdes, Gunseli Berik, y Maria Floro. (2016). *“Género, desarrollo y globalización: La economía como si importaran todas las personas”*. Routledge.
- Elson, Diane (Ed.). (1995). *“El sesgo masculino en el proceso de desarrollo”*. Manchester University Press.
- Razavi, Shahra (Ed.). (2002). *“Pobreza y bienestar con perspectiva de género”*. Blackwell Publishers.
- Blau, Francine D., y Lawrence M. Kahn. (2000). *“Diferencias salariales de género”*. Journal of Economic Perspectives, 14(4), 75-99.
- Rubery, Jill. (2015). *“Desigualdad de género y el mundo del trabajo: Trabajo y bienestar revisitado”*. UN Women Discussion Paper.
- Kabeer, Naila. (2015). *“Género, mercados laborales y pobreza”*. Routledge.

Aurpegi-garbiketa arrosa edo “pinkwashing”

■ AURPEGI-GARBIKETA ARROSA EDO “PINKWASHING”:


Enpresek, gobernuek eta beste erakunde batzuek LGBTI+ eskubideen azaleko babesa erabiltzen dute beren irudi publikoa hobetzeko eta ekintza edo politika eztabaidagarri edo gaitzesgarrien arreta desbideratzeko tresna estrategiko gisa. Hitz honek “pink” (arrosa), historikoki LGBTI+ komunitatearekin lotua, eta “washing” (garbiketa) hitzak konbinatzen ditu, erroreak edo zalantzarriak diren praktikak estaltzeari buruzkoak. **Erakunde batek LGBTI+ eskubideekiko konpromisoa azaletik, benetako laguntzarik gabe, sustatzen duenean** agertzen da aurpegi-garbiketa arrosa edo *pinkwashinga*, arrazoi horrek sortutako borondate onari etekina ateratzeko.

Enpresek askotan aurpegi-garbiketa arrosara jotzen dute **aurrerakoi eta sozialki arduratsu gisa aurkezteko**. LGBTI+ harrotasunaren hilabeteen, ohikoa da ostadarraren koloreak eta mezu inklusiboak dituzten publizitate-kanpaina andana bat ikustea. Hala ere, askotan, ekintza horiek ez dira enpresaren barne-praktiketan islatzen, eta laneko diskriminazioa, langileen esplotazioa edo benetako politika inklusiborik eza barne har ditzakete. Horrela, benetako praktika korporatiboak ezkutatu eta aniztasuna eta inklusioa baloratzen duten kontsumitzaileak erakartzen dituen erreklamo gisa balio du aurpegi-garbiketa arrosak.

Gobernuek ere estrategia politiko gisa erabiltzen ohi dute. Zalantzan jar daitezkeen barne- edo kanpo-politikak dituzten herrialde batzuek, hala nola giza eskubideen urraketak, ustelkeria edo errepresio politikoa, LGBTI+ eskubideen gehiegizko babesa erakuts dezakete, nazioartean duten irudia hobetzeko. Horrek aukera ematen die giza eskubideen eta eskubide aurrerakoen defendatzaile gisa aurkezteko, eta beste arlo batzuetan, berriz, praktika zapaltzaile eta autoritarioak izaten jarraitzen dute. Testuinguru horretan, errealitatea makillatzen duen eta arreta nazioarteko kritiketarik eta presioetatik desbideratzea bilatzen duen harreman publikoen tresna bihurtzen da aurpegi-garbiketa arrosa, LGBTI+ eskubideen aldeko borroka zilegia hustu eta desitxura baitezake.

Azaleko ekintzek arreta eta errekonozimendua jasotzen duten bitartean, **komunitatearen benetako beharrianak arretarik gabe eta benetako laguntzarik gabe gera daitezke**. Horregatik, funtsezkoa da kontsumitzaileak zein herritarrak kritikoak eta analitikoak izatea praktika horien aurrean, enpresek eta gobernuek LGBTI+ eskubideekin duten konpromisoaren benetakotasuna ebaluatuz eta itxuretatik haratago doan ekintza koherente eta eraginkorrak eskatuz. Horrela, LGBTI+ eskubideen babesa benetakoa dela ziurta daiteke, marketinerako edo manipulazio politikorako tresna dela ekidinez.

”



Enpresek irabazizko **merkatua identifikatu dute LGBTI+ komunitatean** eta haien aliatuetan, eta beren kanpainak egokitzen dituzte segmentu demografiko jakin hori erakartzeko.

■ ANIZTASUNAREN KOMERTZIALIZAZIOA:

Azken hamarkadetan, marketin-kanpainak eta marka komertzialek beren **publizitate-estrategietan LGBTI+ sinboloak eta kausak gero eta gehiago txertatu dituztela ikusi dugu. Joera horri “aniztasunaren komertzializazioa”** edo **“rainbow washing”** esaten zaio, eta ostadar-banderak, mezu inklusiboak eta Harrotasuna bezalako ekitaldietarako ageriko babesa erabiltzen ditu. Baina, inklusio hori onarpenerantz eta berdintasunerantz doan aurrerapena dela dirudien arren, sarritan arrazoi ekonomikoek bultzatzen dute gehiago, LGBTI+ pertsonen eskubideekiko eta duintasunarekiko benetako konpromisoak baino.

Enpresek irabazizko merkatua identifikatu dute LGBTI+ komunitatean eta haien aliatuetan, eta beren kanpainak egokitzen dituzte segmentu demografiko jakin hori erakartzeko. Hala ere, kasu askotan, babes hori azalekoa da, eta ez da islatzen barne-politiketan edo benetako inklusioa eta ekitatea sustatzen duten merkataritza-praktiketan. Adibidez, enpresa batzuek Harrotasunaren hilabeteen beren produktuak eta logotipoak ostadarraren koloreekin apaintzen dituzten bitartean, ez dute neurri esanguratsurik hartzen, hala nola lan-politika inklusiboak ezartzea, zuzendaritza-taldeetan ordezkartza anitza izatea edo LGBTI+ erakundeei urte osoan etengabe laguntzea.

Funtsezkoa da aniztasunaren komertzializazio horrekiko **begirada kritikoa garatzea eta babes korporatiboaren benetakotasuna zalantzan jartzea**. Arlo bisual edo sinbolikoetan soilik oinarritzen diren marketin-kanpainak, kausarekiko benetako konpromisorik gabe, LGBTI+ eskubideen aldeko borroka desitxura ditzakete. Gainera, azaleko ekintza horiek komunitateak aurre egiten dien egiturazko arazoen inguruko ikuspegia aldatzeko arriskua dago, aurrerapen-sentsazio faltsua eskainiz desberdintasunek irauten duten bitartean.

Ondorioz, gizarte-kausekin lerrokatu nahi duten enpresen ekintza zehatzak eta funtsezko aldaketak eskatuko dituen aktibismoa sustatu behar da. **Markek erantzukizuna izan behar dute**, eta beren konpromisoa ekimen eraginkorren bidez erakusteko eskatu behar zaie, hala nola laguntza-programak finantzatzuz, lan-ingurune seguru eta inklusiboak sortuz eta LGBTI+ eskubideen defentsa publikoa urte osoan zehar eginez. Horrela bakarrik bermatu ahal izango dugu aniztasunari ematen zaion babesa marketin-estrategia batetik harago doala eta justizia soziala eraikitzen laguntzen duela.

■ LGBTI+ BORROKAREN INSTRUMENTALIZAZIO POLITIKOA:

LGBTI+ borrokaren instrumentalizazio politikoa komunitate honen eskubideen defentsaren erabilerari dagokio, berdintasunarekiko eta justiziarekiko benetako konpromisorik gabeko irudi mesedegarri bat proiektatzeko tresna gisa. Praktika horren adibide komuna aipaturiko aurpegi-garbiketa arrosa edo “pinkwashing” delakoa da. Horren bidez, gobernuek azaletik babesten dituzte LGBTI+ eskubideak, giza eskubideen beste eremu batzuetan dituzten abusu eta urritasunetatik arreta desbideratzeko. Estrategia horrek **aurrerakoitasunezko eta modernitatezko fatxada bat eraikitze** balio du, eskubideak zapaltzeko eta urratzeko beste modu batzuk ezkutatu edo justifikatzen diren bitartean.

LGBTI+ eskubideak nazioartean sustatzen dituzte askotan, beren irudi globala hobetzeko, eta barne-mailan, berriz, politika zapaltzaileak ezartzen jarraitzen dute. Kasu argigarri bat Israelena da, Palestinan okupazioaren eta giza eskubideen urraketen arreta desbideratzeko aurpegi-garbiketa arrosa erabiltzea leporatu baitiote. Israelek LGBTI+ Harrotasuna ospatzen du Tel Aviven eta LGBTI+ eskubideak sustatzen ditu nazioarteko harreman publikoen kanpainetan, palestinarren giza eskubideen baldintzak urratzen jarraitzen duten bitartean.

LGBTI+ eskubideak nazioartean sustatu arren, oinarritzko beste eskubide batzuk urratzen dituzten praktiketan parte hartzen duten mendebaldeko nazio batzuen da beste adibide nabarmen bat. Estatu Batuek eta Erresuma Batuak, esaterako, babesa eman diote LGBTI+ komunitateari, eta immigrazio-politika murriztaileetan, deportazio masiboan eta ekintza militarretan parte hartzen dute, hainbat populazioen eskubideei larriki eragiten dietenak. Horrelako jokabideek kontraesana erakusten dute proiektatzen den irudi aurrerakoien eta gauzatzen diren ekintza zehatzen artean.

Hortaz, funtsezkoa da bai herritarrek bai giza eskubideak defendatzen dituzten erakundeek jarrera kritikoa izatea instrumentalizazio-praktika horien aurrean. LGBTI+ eskubideekiko benetako konpromisoarekin batera, giza eskubide guztien defentsa integrala egin behar da. Aurpegi-garbiketa arrosaren bueltako politiken kontraesanak salatzean eta agerian uztean, gizarte gardenago eta justuago bat eraikitzen laguntzen baita, non aniztasunari babes hutsala emateak ez duen balio beste bidegabekeria eta zapalkuntza mota batzuk estaltzeko.



Funtsezkoa da bai herritarrek bai giza eskubideak defendatzen dituzten erakundeek **jarrera kritikoa** izatea instrumentalizazio-praktika horien aurrean.



Benetako konpromisorik gabeko **aurrerapen-irudia sustatzeak**, gizarteak LGBTI+ komunitatearen benetako borrokak eta beharrak gutxiestea eragin dezake.

■ AURPEGI-GARBIKETA ARROSAREN INPAKTUA LGBTI+ MUGIMENDUAN:

LGBTI+ eskubideak azaletik sustatzeko gobernuen eta korporazioen estrategia gisa ulertzen den aurpegi-garbiketa arrosak eragin nabarmena du LGBTI+ mugimenduan. Praktika horrek eragin negatiboa izan dezake pertzepzio publikoan, **berdintasunaren aldeko borrokan lorpen garrantzitsuak lortu direlako irudipen faltsua sortuz**, nahiz eta diskriminazio- eta zapalkuntza-modu askok iraun. Benetako konpromisorik gabeko aurrerapen-irudia sustatzeak, gizarteak LGBTI+ komunitatearen benetako borrokak eta beharrak gutxiestea eragin dezake.

Horrez gain, aktibismoaren eraginkortasunean inpaktua izan dezake, mugimenduaren esfortzuak zatikatzen eta diluitzen baititu. Korporazioek eta gobernuek gizarteratzeko sinboloak eta erretorikak ekintza zehatzen garapenik gabe hartzen dituztenean, arreta desbideratzen dute aktibismoaren benetako jomugetatik. **Horrek mugimenduko sektore batzuk desmobilizatzea ekar dezake**, haren eskaerak, neurri batean, bete egin direla ikusten baitute, eta, horrela, erakundeek gainera presioa murrizten da, aldaketa esanguratsuak eta iraunkorrak ezartzeko.

Beste alderdi bat baliabideak eta arreta premiazko gaietatik desbideratzeko duengaitasunada. LGBTI+ erakundeak eta aktibistak askotan ikusgarritasunaren eta finantza-laguntzaren mende daude, kausetan aurrera egiteko. Hala ere, baliabideak, irudi korporatiboa edo gobernuaren irudia hobetzea besterik bilatzen ez duten marketin-ekimenetara bideratzen direnean, komunitatearen benetako beharrak ez dira aintzat hartzen. Hori bereziki problematikoa da indarkeria, diskriminazioa eta oinarritzko zerbitzuetarako sarbiderik eza arazo larriak eta premiazkoak diren testuinguruetan.

Azkenik, LGBTI+ mugimenduaren barruan aurpegi-garbiketa arrosak **zatiketak edo hausturak sor ditzake, azaleko laguntza onartzen dutenen eta kritikatzuten dutenen arteko bereizketa sortzen baitu**. Barne-haustura horrek mugimenduaren kohesioa eta elkartasuna ahuldu ditzake, eta zailagoa da eskubideen aldeko borrokan fronte bateratua aurkeztea. Horregatik, funtsezkoa da LGBTI+ aktibismoak erne eta kritiko irautea praktika horien aurrean, eta ziurtatzea jasotako babesa, pertsona guztientzako berdintasunarekiko eta justiziarekiko benetako eta funtsezko konpromisoarekin lerrokatuta dagoela.

■ AURPEGI-GARBIKETA ARROSAREN AURKAKO ERRESISTENTZIA:

LGBTI+ eskubideen aldeko borrokak egiturazko aldaketak osotasunean gauzatzen direla ziurtatzeko, funtsezkoa da aurpegi-garbiketa arrosaren aurkako erresistentzia. **LGBTI+ komunitateak eta bere aliatuek erne eta kritiko izan behar dute** beren kausa marketin-helburuetarako edo helburu politikoetarako azaletik erabiltzea bilatzen duten pinkwashing estrategien aurrean. Hori zaintzea funtsezkoa da komunitatearen benetako eta premiazko eskaerak ez itzaltzeko, eta berdintasunarekiko eta justiziarekiko benetako konpromisorik gabeko itxura baino eskaintzen ez duten kanpainak ekiditeko.

Erresistentzia-estrategia nagusietako bat hezkuntza eta kontzientziazioa dira. **Aktibistek eta erakundeek gogor lan egiten dute jendeari aurpegi-garbiketa arrosaren praktiken berri emateko**, taktika horiek benetako arazoen arreta nola desbideratzen duten eta desberdintasuna nola betikitzen duten azalduz. Komunikabide, tailerren, hitzaldien eta argitalpenen bidez informazioa zabaltzeak aukera ematen die komunitateari eta haren aliatuei ekintza eraldatzaileetan islatzen ez den azaleko laguntza identifikatu eta zalantzan jartzeko. Hezkuntza-lan hori funtsezkoa da, beraz, pentsamendu kritikoaren oinarria sortzeko.

Beste estrategia giltzarri bat eragile sozialen eta aktibisten arteko lankidetzak eta sareak indartzea da. Elkarrekin lan eginez, beren ahotsak anplifika ditzakete, eta ahaleginak koordinatu aurpegi-garbiketa arrosa salatzeke eta aktibismo errealagoa eta eraginkorragoa sustatzeko. Lankidetzak horren barruan sartzen dira **elkarri laguntzea, baliabideak partekatzea eta LGBTI+ komunitatearen benetako beharrak nabarmentzen dituzten kanpaina bateratuak egitea**. Indarrak batzeak aukera ematen du korporazio handiei eta gobernuei modu eraginkorragoan aurre egiteko, LGBTI+ mugimenduak justizia eta berdintasuneko funtsezko helburuetan zentratuta jarraituko duela ziurtatuz.

”

Indarrak batzeak aukera ematen du korporazio handiei eta gobernuei modu eraginkorragoan aurre egiteko.



Bibliografia:

- Ahmed, S. (2012). *“Sobre la inclusión: Racismo y diversidad en la vida institucional”*. Duke University Press.
- Ritchie, J. (2015). *“Pinkwashing, homonacionalismo y Israel-Palestina: Las concepciones de la teoría queer y la política de lo ordinario”*. Antipode.
- Schulman, S. (2012). *“Israel/Palestina y el Internacional Queer”*. Duke University Press.
- Puar, J. K. (2013). *“Repensando el homonacionalismo”*. International Journal of Middle East Studies.
- Haritaworn, J., Kuntsman, A., & Posocco, S. (Eds.). (2014). *“Necro-política queer”*. Routledge.



UNITATEAREN GARAPENA

1. SAIOA (60 min.)

■ **Interseksionalitatea** zer den eta pribilegio/zapalkuntza dikotomiaren konplexutasuna ezagutzera bideratutako saioa. Aldi berean, bakoitzaren interseksioak zeintzuk diren eta jendartean dauzkagun pribilegio eta menpekotasun posizioen kontzientzia hartzea eta honen hausnartzea bultzatuko da.

2. SAIOA (120 min.)

■ **Ekonomia feminista** ezagutu eta bestelako proposamen ekonomikoen aurrean dauzkan bertuteak kontutan izanda, ongizatearen ideiarekin inguruan hausnartu eta hau bilatzeko BPGtik (Barne-produktu gordina) haragoko indikatzaileak definitzeko talde hausnarketan sartzeko oinarriak jarriko dira.

3. SAIOA (120 min.)

■ **Pinkwashing**-aren edota homonazionalismoa bezalako fenomenoak ezagutu, honen bueltan ematen diren instrumentalizazio eta monetizazio praktikak kritikoki aztertu eta fenomeno hauek aniztasunaren onarpenerako eta justizia sozialerako balio ote duten hausnartuko da. Aldi berea, horrelako praktikan ez erortzeko praktika onak ere bilatuko dira.

+ SAIOA (60 min.)

■ Unitate didaktiko honen azken saio moduan, ikasleei **proiektu** ekonomiko bat pentsatu (kooperatiba txiki bat esaterako) eta aurreko saioetan ikasitako eta hausnartutakoak kontutan izanda, zein politika ekonomiko eta praktika eraldatzaile eramango zituzten aurrera pentsatu beharko dute.

.....

Unitate didaktiko honen azkeneko saioan garatzea eskatzen den proiektua lehenengo saiotik azaldu eta jada ikasleak horretan jarri beharko dira, hurrengo galderari erantzunez: *saio honetan ikusi eta ikasitakoak kontutan izanda, proiektu ekonomiko batetan zer izan beharko genuke kontutan?*



1. saioa

Interseksionalitatea

Gidoia:

1. Ongi etorria: unitate didaktikoa aurkeztuko da saio bakoitzean landuko den gaia aurreratuz. UD honen amaieran egin beharreko proiektua ere aurreratuko da horretarako 4-5 pertsonako taldeak egingo dira azken proiektu hori aurrera eramateko. **(5 min.)**

2. Saioaren garapena:

- **1. dinamika: “eman pausu bat aurrera”**, interseksionalitatearen ideia ezagutu eta zapalkuntza anizkoitzen ondorioak ezagutzera bideratua egongo da. Ariketak, taldean dauden posizio sozial ezberdinak jarriko ditu agerian eta horren inguruan hausnartzeko aukera ere emango du. **(20 min.)**
- **2. dinamika: “norbere intersekzioak identifikatzen”**, aurreko dinamikari jarraiki, oraingoan maila indibidualean, interseksionalitate kokatuaren ideia kontutan izanda, testuinguruaren arabera norbere intersekzioak aztertzei aukera emango digu eta taldearekin elkarbanatu. **(20 min.)**

3. Itxiera: kolektiboki saioaren uzta eta saiotik sortutako zalantzak jasoko dira, hurrengo saioan argitzeko. **(10 min.)**

SAIOAREN GARAPENA

» 1. DINAMIKA

Eman pausu bat aurrera



20 min.



■ **BEHARREZKO MATERIALAK:** paperontzi bat, parte-hartzaile bakoitzeko paper bola bat, espazio zabal bat eta proiektorea.

■ **EDUKIAK:** behin dinamika egin ostean eta hausnarketak partekatu ostean azalduko da interseksionalitatearen ideia eta proposatutako bideo bat lagungarri izan daiteke.

■ **IRAUPENA:** 20 minutu.



■ ARIKETA:

Gelaren zentroan paperontzi bat jarriko da eta parte-hartzaileak haren inguruan jarriko dira borobilean paretaren aurka. Bakoitzak eskuan paper bola bat izango du. Esatsen diren esaldi bakoitzarekin **identifikatuak sentitzen badira, pausu bat** eman beharko dute aurrera. Esaldi guztiak esanda daudenean, dauden tokitik paper bola paperontzian sartzeko eskatuko zaie. Hemen esaldiak:

- 40 urtetik behera badituzu.
- Euskal Herrian jaio bazara.
- Zure azal kolorea zuria/argia bada.
- Gizonetzkoa bazara.
- Gizon maskulinoa bazara.
- Gaur egun, jaiotzerakoan ezarri zizuten generoarekin bat bazatoz.
- Heterosexuala bazara.
- Bikotea badaukazu.
- Hirian edota herri ertain batean (2.000-10.000 bizt.+) bizi bazara.
- Fisikoki “osasuntsu” bazaude edota gaitasun fisiko estandarrak badituzu.
- Mentalki “osasuntsu” bazaude edota gaitasun kognitibo estandarrak badituzu.
- Hilabete amaierara ekonomikoki arazo gabe iristen bazara.
- Sostengu sare bat badaukazu (familiarra, soziala,...).



■ Behin paper bola botatakoan, bakoitza dagoen tokiaz eta gainontzekoak **non dauden begiratzeko eta kontzientzia hartzeko** eskatuko zaie. Eta hurrengo galderak erabili daitezke hausnarketa abiatzeko:

- Nola sentitu zarete? Egon al dira zailagoak egin zaizkizuen esaldirik? Zergatik?
- Zerbaitek harritu al dizue? Zerk bereziki?
- Dinamika honetatik, zer ondorioztatzen edota gogoetatzen duzue alderdi pertsonalerako eta kolektiborako?

» ADI!

- Arestian proposatu diren **esaldiak aldatu daitezke**, taldean dagoen aniztasuna ikusita, bestelako esaldi batzuk erabili daitezke, zeinak bizitzan testuinguruaren arabera erraztasun edo oztopo izan daitezkeen: loditasuna, etxebizitza, erlijioa, kultura, norbere autoestimua...
- Konturatu paper bola bota aurretik pertsona bakoitzaren kokapenaz, aniztasuna al dago, **homogeneitate bat ikusten al da?** Elkar lagundu al dira papera botatzeko momentuan edo erraztu al diete elkarri papera ontzian sartzea?

Behin galderen inguruan arituta, **interseksionalitatearen ideia azalduko zaie**. Horretarako, euskarri bezala hurrengo bideoa proiektatu daiteke edota Irukiren komikia¹.



Bideoa: https://www.youtube.com/watch?v=BSQ-9v_XQis

¹Eranskinetan

» 2. DINAMIKA
Norbere interseksioak aztertzen




- **BEHARREZKO MATERIALAK:** bakoitzak bere ordenagailua, ariketarako fitxategia.
- **IRAUPENA:** 20 minutu.



■ **ARIKETA:**
Aurreko ariketari jarraiki, oraingo honetan beste euskarri baterabilita eta modu indibidualean, norbere interseksioak identifikatuko ditugu. Horretarako, **ordenagailuan kalkulu-orri bat zabalduko dugu**. Bertan, zutabe bakoitzean zapalkuntza-ardatz bat ikusiko dugu eta lerro bakoitzean testuinguru bat:

	Zis-araua	Generoa	Genero adierazpena	Desiraren orientazioa	Klasea	Ikasketa maila	Arraza	Jatorria	Hizkuntza	Adina	Gorputz-funtzionaltasuna	Ugal-gaitasuna	Loditasuna
Kalean													
Lagunartean													
Enpleguan / Ikasketa eremuan													
Aktibismoan / Beste inguru batean													
Familia / Sare afektiboa													



Otik 5erako eskala batetan, bakoitzaren bizipenaren eta kontzientziaren arabera zapalkuntza-ardatz eta testuinguru bakoitzean bakoitzaren pribilegio edo zapalkuntza maila zehaztu beharko du.



ADIBIDEZ: nire genero adierazpena, maskulinoa bada ni neska izanda, kalean 0 eta 1 artean ibiliko naiz, beraz genero-espresioaren zutabea eta kalea elkartzen diren gelaxkan 0 edo 1 zenbakiak jarriko ditut. Lagunartean aldiz, nire genero-espresioagatik ez dut diskriminaziorik bizi. Are gehiago, lagunartean genero-espresio ez-normatiboa daukagunak gara gehiengoa beraz, kasu honetan 4-5 artean nago. Ondorioz, genero-espresioaren zutabea eta lagunartea linea elkartzen den gelaxkan 4 edo 5 jarriko dut.

	Zis-araua	Generoa	Genero adierazpena	Desiraren orientazioa	Klasea	Ikasketa maila	Arraza	Jatorria	Hizkuntza	Adina	Corputz-funtzionaltasuna	Ugal-gaitasuna	Loditasuna
Kalean			1										
Lagunartean			5										

Zenbakiak jartzen goazen heinean, dokumentuaren erdigunean dagoen grafikoan, bakoitzaren intersekzioak marrazten joango dira eta **gure posizio sozialaren irudi bat** eraikiko da.

■ Behin zenbaki guztiak sartuta eta bakoitzak bere irudia eraikita, bakoitzari eraikitako irudi horrek zer esaten dion, nola sentiarazten duen eta zer pentsarazten dion **hausnartzeko tarte bat** utziko da. Ostean, talde handian, nahi duenak bere hausnarketa adierazteko aukera zabalduko da.

» ADI!

- Aurreko ariketa moduan, **zapalkuntza-ardatz ezberdinak sartu** daitezke dokumentuan. Baina hau eginez gero, grafikoaren konfigurazioa aldatu beharko da gehitzen diren ardatzak ere agertzeko.
- **Aztertu irudia.** Gehien bat koloretako marrak erdialdean al daude? Ala kanpoaldean? Zer esan nahi du bakoitzak?
- Interseksionalitate kokatuaren ideia, hau da, **testuinguruaren arabera** esperientzia aldatzen denaren ideia azaldu daiteke.

.....

■ ARIKETARAKO ARTXIBOAK:



- .ods (Libre Office formatuan): <https://labur.eus/IntersekzioakODS>
- .xlsx (Microsoft Office formatuan): <https://labur.eus/IntersekzioakXLSX>

.....

» ITXIERA



10 min.

Saioa amaitzeko, ikasitako ideiak, bakoitza **post-it** baten, pareta batean jasoko ditugu **UZTA** bezala. Sortu diren zalantza eta galderak ere, post-it batean bakoitza, jasoko dira eta paretako beste toki batetan jasoko dira **HOZKAILU** moduan, hurrengo saiorako irakasleak argitu ahal izateko.

2. saioa

Ekonomia feminista

Gidoia:

0. Aurreko saioko hozkailua hustutzen: aurreko saiotik hozkailuan geratutako zalantza eta galderak erantzuteko tarte bat hartuko da. **(5 min.)**

1. Gaian sartzen: Gaian sartzeko, irakasleak ekonomia feministaren proposamena azalduko du. Horretarako, UD honekin batera datozen edukiak erabiliko dira baita proposatzen den bibliografia ezberdina ere. **(10 min.)**

2. Saioaren garapena:

■ **1. dinamika: “Ekonomia feministaren proposamenak aztertzen”.** Lan produktiboaren eta erreproduktiboaren alderaketa bat egingo da eta gaur egungo jendartean hauen artean ematen den hierarkizazioa eta lan erreproduktiboaren monetarizazio eza zalantzan jarriko da. Honetaz gain, bizitzaren jasagarritasuna erdigunean jarrita, ongizatea neurtzeko indikatzaile ezberdinen inguruan arituko gara. **(45 min.)**

■ **2. dinamika: “Ongizate indikatzaileak”.** Ongizate indikatzaileak BPGtik urrundu eta bizitzaren jasagarritasunerako bestelako elementuei begiratzeko aukera izango da ariketa honetan. Horretarako, Bhutan bezalako herrialdeek egindakoak edota ekonomia feministak proposatzen dituenak ikertu eta taldeka ongizate indikatzaile proposamenak egingo dira. **(50 min.)**

3. Itxiera: kolektiboki saioaren uzta eta saiotik sortutako zalantzak jasoko dira, hurrengo saioan argitzeko **(10 min.)**

» ADI!

■ Saio hau, Unitate Didaktikoko 1. saioa gauzatu gabe burutzea pentsatzen baduzu, interseksionalitatearen gaia modu teoriko baten lantzea proposatzen dizugu. Horretarako, erabili Unitate Didaktikoko **marko teorikoa** eta 1. saioko interseksionalitatearen bideoa.

SAIOAREN GARAPENA

» 1. DINAMIKA

Ekonomia feministaren proposamenak aztertzen



45 min.



■ **BEHARREZKO MATERIALAK:** proiektorea.

■ **EDUKIAK:** lan produktibo eta erreproduktiboaren hierarkizazioa, PIBa, ongizate indikatzaileak.

■ **IRAUPENA:** 45 minutu.

.....



■ ARIKETA:

Lehenik eta behin, CNN Chile telebista kanalean Cristina Carrasco Ekonomian Doktoari egindako **elkarriketa** proiektatuko da. (22 min)

Ostean, talde handian, arbelean lan erreproduktiboarekin lotu daitezkeen **ideiak eta adibideak** zerrendatuko dira. Honek, ostean aukera emango ditu lan erreproduktiboari balioa eman eta ekonomian izan beharko lukeen garrantzia azpimarratzeko.



ADI!

■ Lan produktiboaren eta erreproduktiboaren arteko **hierarkizazioa eta genero desberdintasunak** aipatuko ditugu.

.....



■ **Bideoa:** <https://www.youtube.com/watch?v=W6rZ6jlhb-8>

.....

» 2. DINAMIKA

Ongizate indikatzaileak



50 min.



■ ARIKETA:

Butaneko adibidea ezagutuko da gainetik proposatutako **bideoa** proiektatuta. Ostein, talde txikitan elkartu eta ongizate indikatzaileen inguruan eta honen inguruan ekonomia feministak egiten dituen **proposamenak ikertzeko** eskatuko zaie. Ostein, bizitzaren jasagarritasuna erdigunean jartzeko, talde bakoitzak beraientzat herrialde batetako edota komunitate batetako ongizate indikatzaileek kontutan zer izan behar duten definitu beharko dute, nolabaiteko **dekalogo** bat eraikiz. Ostein, talde handian elkarbanatuko da.

■ Ongizate indikatzaileak definitzeko hurrengo galderak izan daitezke erabilgarriak. Ez dira banan-banan denak erantzun behar, **hausnarketarako galdera pizgarriak** dira:

- Herrialde edo komunitate baten, diruaz edo eroste gaitasunaz gain, ze beste elementu izan beharko lirateke garrantzitsuak komunitate horretako ongizatea neurtzeko?
- Zeintzuk uste duzue direla pertsona baten ongizaterako beharrezko elementuak?
- Pertsonen arteko harremanen nolakotasunak eragina al dauka jendarte baten ongizatean?
- Guztihonetan, aurreko saioan ikusitako interseksionalitateak ze garrantzi dauka? Nola?
- Naturaren eta planetaren ongizatea ere pertsonentzat ongizatea al da?

» ADI!

■ Ikerketan ikasleak bidelaguntzeko, UD honetako **bibliografia erabili dezakegu**.



■ **Bideoa:** <https://www.youtube.com/watch?v=6Tf5Q6VQ1RI>

» ITXIERA

Saioa amaitzeko, ikasitako ideiak, bakoitza **post-it** baten, pareta batean jasoko ditugu **UZTA** bezala. Sortu diren zalantza eta galderak ere, post-it batean bakoitza, jasoko dira eta paretako beste toki batetan jasoko dira **HOZKAILU** moduan, hurrengo saiorako irakasleak argitu ahal izateko.



10 min.

3. saioa

Pinkwashing

Gidoia:

0. Aurreko saioko hozkailua hustutzen: aurreko saiotik hozkailuan geratutako zalantza eta galderak erantzuteko tarte bat hartuko da. **(5 min.)**

1. Gaian sartzeko: Gaian sartzeko, irakasleak pinkwashing-a zer den azalduko du. Horretarako, UD honekin batera datozen edukiak erabiliko dira baita proposatzen den bibliografia eta bideo ezberdinak ere. **(10 min.)**

Bideoa: <https://www.youtube.com/watch?v=URKVjJH3hOA>

2. Saioaren garapena:

- **1. dinamika: “Eta Euskal Herrian zer?”** Euskal Herrian pinkwashing adibideak bilatu eta honi kritika egin dieten kolektibo eta herri mugimenduko eragile ezberdinen diskurtsoak bilduko dituzte taldeka. Ostean, denen artean elkarbanatzeko. **(40 min.)**
- **2. dinamika: “Pride: argiak eta ilunak?”** Pride eta kapitalismo arrosaren inguruko debate bat planteatzen da, atzerritik Euskal Herrira etorri berri den pertsona trans baten historia bat debaterako pizgarri izanda. **(60 min.)**

3. Itxiera: kolektiboki saioaren uzta eta saiotik sortutako zalantzak jasoko dira, hurrengo saioan argitzeko. **(10 min.)**

» ADI!

■ Saio hau, Unitate Didaktikoko 1. saioa gauzatu gabe burutzea pentsatzen baduzu, interseksionalitatearen gaia **modu teoriko** baten lantzea proposatzen dizugu. Horretarako, erabili Unitate Didaktikoko marko teorikoa eta 1. saioko interseksionalitatearen bideoa.

SAIOAREN GARAPENA

» 1. DINAMIKA

Eta Euskal Herrian zer?



40 min.



■ **BEHARREZKO MATERIALAK:** ordenagailuak.

■ **EDUKIAK:** pinkwashing, homonazionalismoa, kapitalismo arrosa, Stonewalleko matxinada.

■ **IRAUPENA:** 40 minutu.

.....



■ **ARIKETA:**

Talde txikitan elkartuta, **Euskal Herrian** kapitalismo arrosari lotuta eta pinkwashing-aren inguruan eman diren **ekimen ezberdinen** eta hauei **kritika egin dieten kolektiboen** inguruko informazioa biltzea eskatuko zaie. Ostean, talde handian elkarbanatu eta denen artean



ADI!

■ Kontutan izan **Harro! Euskal herrietako plataforma transmaribolloa eta Bilbao Bizkaia Harro** ez direla gauza bera. Are gehiago, aurrez-aurre dauden bi ekimen ezberdin dira. Batak eredu kapitalista defendatzen du eta besteak antikapitalistak dira.

.....

■ **Erreferentziak:**

- <https://www.pikaramagazine.com/2019/07/orgullo-bilbao-mercantilizacion/>
- <https://www.argia.eus/albistea/harro-jaio-da-euskal-herrietako-lgbti-elkarte-ezberdinek-osatutako-plataforma>
- <https://www.argia.eus/argia-astekaria/2658/joseba-gabilondo-marques-harro-plataformako-kidea>



.....

» 2. DINAMIKA

Pride: argiak eta ilunak?

60 min.



- **BEHARREZKO MATERIALAK:** Ez da materialik behar.
- **EDUKIAK:** Debatea.
- **IRAUPENA:** 60 minutu.

■ **ARIKETA:**

Klase mailan debate bat planteatzen da: Pride eredua: argiak eta ilunak. Hau da, ekainaren 28ko Harrotasun eguneko edo Sexu Askapenerako nazioarteko eguneko ospakizunen bueltan sortzen diren aldarrikapen eta jai ereduaren inguruko debate bat. Izan ere, Euskal Herrian, Estatu Espainiarrean eta nazioartean ereduen talka bat dago.

- Alde batetik, kapitalismo arrosa definitu izan den eredua dago, zeinak **Ekainaren 28a negozioa egiteko aitzaki** moduan erabiltzen duen (pinkwashing).
- Eta beste aldetik, Ekainaren 28a **borrokarako eta aldarrikapenerako eguna** (baita jaia ere) dela eta horrekin negozioarik egiten ez dela defendatzen duen eredua. Aurreko ariketarako erabili daitezkeen erreferentziak erabili daitezke hau azaltzeko.

Debaterako rolak banatuko dira, aldekoak eta aurkakoak.

**Debate horren pizgarri moduan hurrengo istorioa kontatuko da:**

Noe 23 urtetako trans neska mexikar bat da. Mexikon bizi izan da orain arte eta bizi zen tokian kolonialismoaren ondorioz pobrezia egoera oso latza izateaz gain, trans pertsonen aurkako indarkeri gordina dago, izan ere, pertsona trans eta ez-bitarrak heriotzara arte jazarriak izaten dira.

Bizi duen egoera dela eta migratzea erabakitzen du eta Bilbon amaitzen du, bertan lagun bat baitauka. Bilbora ekainean heltzen da eta zazpi kaleak ortzadarraren banderez josita ikusteak asko harritu eta pozten du. Bere jatorrian baino askatasun gehiago dagoela sentitzen du Bilbon aste pare bat bizitzen pasa dituenean. Sentitzen du Bilbon askatasunez bera den bezalakoa izan daitekeela eta inguru seguru moduan bizi du.

Ekainaren 21, 22 eta 23an Bilbao Bizkaia Harro ekimena dagoela ikusi du, ikuskizun, ekitaldi kultural eta festa biltzen duen ekimen bat. Baina aldi berean, horren kontra dauden LGBTI+ eta sexu askapenerako kolektibo ezberdinak ere ikusi ditu eta Bilbao Bizkaia Harro boikota egiteko deia zabaltzen dute.

Noe nahastuta dago, izan ere berak Bilbao Bizkaia Harro bezalako ekimen bat askatasun espazio moduan ikusten du bere jatorriko egoerarekin konparatuta. Beraz hori berarentzat oso positiboa da. Baina aldi berean, LGBTI+ eskubideen alde egunero kalean borrokan dauden kide askoren aurkakotasuna ikusten du. Ez daki zer egin.

■ **Debatea pizteko galderak:**

- Zein da zure iritzia?
- Bilbao Bizkaia Harro bezalako ekimen bat askatzailea izan daiteke?
- Zein iritzi duzu Ekainaren 28aren bueltan negozio pertsonala egitearen inguruan?



■ Debatea ixteko, debatearen zehar izandako **ideia garrantzitsuenak bilduko dira.**

» ADI!

■ Noeren historia hobeto ulertzeko hurrengo **bideoa** ikusi daiteke:
<https://www.youtube.com/watch?v=r9V7jBytYmE>

■ **Irakasleak debateko moderatzaile** moduan, ez du alde baten ala bestearen aurka egingo. Ideia, alde baten zein bestean egon daitezkeen kontraesanak ezagutzea da eta beraiek heltzea justizia sozialaren ideiarekin bat egin da konklusioen batetara.

» ITXIERA

Saioa amaitzeko, ikasitako ideiak, bakoitza **post-it** baten, pareta batean jasoko ditugu **UZTA** bezala. Sortu diren zalantza eta galderak ere, post-it batean bakoitza, jasoko dira eta paretako beste toki batetan jasoko dira **HOZKAILU** moduan, hurrengo saiorako irakasleak argitu ahal izateko.



10 min.

+ **saioa**
Proiektua

60 min.

Gidoia:

0. Aurreko saioko hozkailua hustutzen: aurreko saiotik hozkailuan geratutako zalantza eta galderak erantzuteko tarte bat hartuko da. (5 min.)

1. Saioaren garapena.

■ **ARIKETA:**

Unitate Didaktikoaren hasieran egindako taldeetan bildu eta 60 minutu izango dituzte talde bezala **negozio edo proiektu ekonomiko bat pentsatu** (kooperatiba bat adibidez) eta UD-an zehar ikasitakoak proiektu horren definizioan txertatzeko.

■ Horretarako **galdera pizgarri** hauek pasako dizkiegu:

- Zuen proiektuan nola izango dira kontutan kideen zapalkuntza anitzak eta horren ondoriozko botere harremanak?
- Ze bitarteko edo tresna erabiliko zenukete botere harreman horiek lantzeko?
- Proiektuko lan produktibo eta erreproduktiboen inguruan ze erabaki hartuko zenukete?
- Proiektuko kideen ongizatea bilatze aldera, zer izango duzue kontutan soldataz gain? Nola ahalbidetuko zenukete ongizate hori?
- Nola txertatuko zenukete ekonomia feministaren proposamenak proiektuan?
- LGBTI+ eskubideen aldarrikapenari begiratuta, zer egingo zenukete proiektu bezala?

■ Ostean, proiektu bakoitza 5-10 minututan **gainontzeko kideen aurrean aurkeztuko dute.**



» ADI!

■ Unitate Didaktiko honetako aurreko hiru saioak ez badituzu aurrera eraman, azkeneko saio hau egin ahal izateko, lan produktibo-erreproduktiboaren, erantzunkidetasunaren, LGBTI+ eskubideen, parekidetasunaren... inguruko **azalpenak ematea** proposatzen dugu, hau da, aurreko saioetan lantzen diren edukiak ikasleekin lantzea proposatzen dugu. Horretarako, **unitate didaktiko honetako marko teorikoa eta baliabide ezberdinak erabili ditzakezu.**



■ Material erabilgarriak:

[Mugarik gabeko Ekonomialariak-en Canvas Soziala.](#)

Proiektuen lanketa feministarako esferak:
<https://meta.olatukoop.eus/s/qDrMaNBrrpsqdsF>



ERANSKINAK

1. eranskina: Interseksionalitatea (I)

Intersectionality: a fun guide, by Miriam Dobson

INTERSEKZIONALITATEA gida dibertigarria



Itziar Gandarias: "Aliantzak, aniztasuna eta horien arteko elkarguneak"

ZER DA?

Interseksionalitatea (euskara "elkargune") indibiduo bakoitzak dagozkion kategoria sozial anitzengatik jasaten duen zapalkuntza eta dituen pribilegioen gurutzaketa edo elkar lotura fenomeno da.

Gure gorputzak zapalkuntza sistemek zeharkatuta aurkitzen dira momentu eta era desberdinetan, beraz **bakarra landu ezin** diren identitate, pribilegio eta zapalkuntza formak dira.

(generoa, jatorria, orientazioa, aurrekariak, etnia, hizkuntza, maila sozioekonomikoa, ikasketak, kultura, enjioa, kultura, ideologia, baldintza funtzionala, fisiofonia, etab).

Zapalkuntza eta pribilegioz jositako identitate sozial hauek **ez dira metagarriak** (ondorioz, ezin da hierarkizaziorik egin, edo borrokarik lehenetsi), baizik eta interseksionalak.

Borroka-aren subjektu bakarra izateak, borroka ezberdinen subjektu anitzak izatera igaro.

Interseksionalitateak **pertsonok kokaleku bat daukagula erakusten digu**, eta kokaleku horrek gure bizitzako aukerak eta gaitasunak baldintzatzen dituela. Subjektua nola sortzen den galderari erantzuten dion proposamena da.

"Landagunean bizitzeak, kanpoko auzo batean gazte izateak, emakume etorkin eta etxeko langilea izateak euskara hitz egiteak edo ezintasunen bat izateak kokaleku desberdinetan jartzen gaitu."


Ez da gizarte bazterketaren teoria bat, baizik eta **agente bihurtzearen eta ahaluntze gaitasunetan indarra jartzera bideratutakoa**.

"Aukera ematen du norberari buruz beste era batera pentsatzeko ohartzen garen neurrian normalki erabiltzen ditugun kategoria sozialak ez direla naturalak eraikiak baizik."

Sektore artekootasunarengandik ezberdintzen da, **interseksionalitatea ez baita ari subjektuen arteko aliantza**, baizik eta borroka ezberdinen subjektu anitzatzat ulertzen bakoitza.

2. eranskina: Interseksionalitatea (II)

PRIBILEGIOA



Iturria: "Intersectionality as critical social theory" (Patricia Hill Collins)
Hiruki Larroxa Kolektiboak egokitua eta euskaratua



<https://ecosfron.org/euskadi>



Economistas sin Fronteras- EsF Euskadi



@ecosfron.euskadi

Mugarik gabeko
Ekonomilariak



Economistas
sin Fronteras

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Kultura, Turismo, Gazteria
eta Kirol Departamentua



Diputación Foral
de Gipuzkoa
Departamento de Cultura,
Turismo, Juventud y Deportes

Bizkaia
enpleguak, giza berraketa eta
kulturaltasuna sustatzen dituen
departamentua de enplego,
inclusion social e igualdad



GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO